



## Enpresa aurre-planerako gidoia

Data:

Pertsona ekintzaile(ar)en izen-abizenak:

-

-

Idea honetan datza:

Kokapena:

Aurreikusitako ekintzaren hasiera-data:

Behargintza Basauri-Etxebarriren Enpresa-Sorkuntza zerbitzuan zure enpresa-plana egiten lagunduko dizugu.

Gure helburua **EZ** da ideia enpresarial bat duten pertsona guztiak enpresa bat eratzea; baina **BAI** erremintak eta ezagupenak eskaintzea, ideia enpresarial bat duten pertsonak ideia bideragarritasuna azter dezaten, horretarako enpresa plan bat eginez.

Baina, **zer da enpresa plana?** (negozio-plana, enpresa proiektua edo bideragarritasun plana ere deitzen zaio). Dokumentu bat da, zenbait funtzio betetzen dituena:

- Zure **etorkizuneko enpresaren bideragarritasuna** aztertzeko balio du, eta **negozio-aukera erreal bat den ala ez** jakiteko. **Plangintza egin eta erabakiak hartzen** laguntzen digu.
- Besteren aurrean **aurkezpen-gutun** moduan ere balio du (finantza erakundeetarako, bazkideentzako edota erakundeetarako).
- Etorkizuneko enpresaren **analisi eta kontrolerako tresna** bat ere bada: enpresa sortu **aurretiko arriskuak neurtzen** lagunduko digu, eta horrela horiei aurre hartu eta saihestu egin ahalko ditugu.

Behar besteko denbora-tartea eman iezaiozu: askoz merkeagoa da enpresa planean huts egitea errealitatean huts egitea baino. Enpresa baten sorkuntzan pentsatzeko garaian, hausnartu eta egin galdera hauek zeure buruari:

- Zergatik sortu nahi dut enpresa bat?
- Ba al dago nik eskainiko dudan bezalako beste produkturik?
- Zertan izango naiz berezia?
- Ba al dut enpresa hau sortzeko behar adina baliabide? Dirua, prestakuntza, eskarmentua, kontaktuak...



Zure ideiaaren bideragarritasuna aztertzeko gure laguntza nahi baduzu informazio hau idatziz betetzeko eskatu behar dizugu, lagungarria izango baitzaigu lanean hasteko:

#### **0- Balio proposamena**

Zer eskainiko dut?

Zein arazo konponduko dut? / Zein beharrizan aseko dut?

#### **1- Eskarmentua**

Ba al duzu eskarmenturik jarduera honetan edo antzeko batean?

Zenbat, eta non hartu duzu?

#### **2- Bezeroak**

Zein dira zure bezero garrantzitsuenak?

Baduzu hasieratik bezero-zorrorik, ala "hutsetik" abiatuko gara?

#### **3- Lehiakideak**

Zein dira zure lehiakide nagusiak?

Zuk eskainiko duzuna dagoeneko merkatuan baldin badago: Nola berezituko zara?

#### **4- Komunikazioa, banaketa eta salmenta bideak**

Zein bide erabiliko duzu zure enpresa ezagutarazteko?

Beharrezkoa al da saltoki/ lokal bat? Non? Hitz egin al duzu jabearekin?

#### **5- Bazkide gakoak**

Zein dira zure hornitzaile edota bazkide gakoak?

Ezagutzen al dituzu, ala bila hasi behar duzu?

#### **6- Diru-sarrerak**

Kalkulatu al duzu diru-sarrerak zenbatekoak izan behar diren?

Nola ordainduko dizute bezeroek? (adibidez, dirutan, 30-60-90 egunetara, e.a....)



## 7- Gastuak

Pentsatu al duzu zein izango diren zure etorkizuneko negozioaren gastu ohikoenak?

Zeintzuk dira? Zehaztu, BEZ sartu gabe.

GASTUAK:	€:
Lokala alokatzea	€
Aseguruak: Lokalarena, ibilgailuena, erantzukizun zibila	€
Aholkularitza	€
Hornidurak: argia, ura, gasa	€
Telefonoa eta interneta	€
Bulegoko materiala	€
Bidaia gastuak; gasolina, bidesariak, TAO	€
Soldatak (pertsona sustatzaileak)	€
Gizarte Segurantza (Langile Autonomoen Erregimen Berezia)	€
Soldatak (pertsona kontratatuak)	€
Gizarte Segurantza (pertsona kontratatuak)	€
Publizitatea	€
Mailegua itzultzea	€
Gastu Finantzarioak	€
<b>GASTUAK GUZTIRA:</b>	



## 8- Hasierako inbertsioa

Kalkula ezazu zure etorkizuneko negozioa abian jartzeko erosi eta ordaindu behar duzun guztia. Ez sartu BEZ.

INBERTSIOAK:	€:
Lokalaren fidantza	€
Transferentzia	€
Lokala atontzeko lanak	€
Obra/jarduera baimenak	€
Arkitekto/dekoratzailearen proiektua	€
Higiezinaren agentziaren komisioa	€
Sozietatearen eratze gastuak (notarioa,...)	€
Hasierako Publizitatea: web orria, korporazioaren irudia, dosierra...	€
Argia, ura, gasa, telefonoa eta interneten alta ematea	€
Makineria, erremintak	€
Altzariak	€
Beste inbertsio batzuk: errotulua, kutxa erregistratzailea, suitzalgailua, telefonoa	€
Garraiorako elementuak	€
Informatika ekipoak: ordenagailua, inprimagailua, eskanerra, softwarea	€
Hasierako stocka	€
	€
	€
<b>INBERTSIOAK GUZTIRA:</b>	€

## 9- Finantziarioa

Badakizu zein den zure negozioa abian jartzeko beharko duzun gutxi gorabeherako zenbatekoa? Eman diezagukezu gutxi gorabeherako zenbateko bat?

Baduzu baliabiderik egin asmo duzun inbertsiorako?

Hala ez bada, eta banku edo aurrezki kutxa batean mailegua eskatuko baduzu: Baduzu maileguaren baldintzei buruzko informazio errealik? Zein erakunderekin? Galdetu al duzu emango lizuketen ala ez?

## 10- Zein modutan uste duzu lagundu ahal dizula Behargintza Basauri-Etxebarrik?